

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak
Durango, 2019ko azaroak 1-3

JUSTIZIA FEMINISTA EZTABAIDAGAI
Justizia Feminista Mintegia¹

SARRERA ETA TESTUINGURUA

2017an sortu genuen Foro Sozial Iraunkorraren² baitan genero lantaldea³. Ordutik hona, lan dezente egin dugu, baina batez ere, 2017ko urriaren 8an, Bilboko Solokoetxen antolatu genuen “Nik sinisten dizut. Emakumeon egia aitortu” ekimena mugarri bilakatu zen bakegintzan feminismotik eragin nahi dugunontzat. Egun horretan, azken hamarkadan euskal feminismoak zabaldu duen bidetik, emakumeok bizi (izan) ditugun mota guztietako indarkeriak maila berean jarri eta aitortu nahi izan genituen. Bakegintzaren eraikuntza kolektiboan murgilduta gaude Euskal Herrian eta, ahalegin horretan, sinetsita gaude ezinbestekoa dela euskal gatazka deiturikoak zuzenean eragindako biolentziak aitortzea, justizia egitea eta erreparaziorako urratsak ematea. Baina, gatazka hori beste biolentzia batzuekin elkargurutzatuta egon da, artean, emakumeen bizitzak, askotariko testuinguru eta egoeretan, ikaragarri jo dituzten indarkeria matxista mota askorekin.

Hurrengo urtean, abiapuntuko ekimen horretatik tiraka, ondoko gogoetari bueltaka hasi ginen: Zer da justizia guretzat? Zein da eta nolakoa izan beharko lukete justiziaren kontzeptuak eta ereduak? Nondik has gaitezke horiek eraikitzen? Galdera potoloegiak nolnahi zein bat-batean erantzun ahal izateko. Are gehiago, erantzun azkarrak eta borobilak erditzea desiragarria ez izanik. Hala ere, ekimen eta lan esparru ezberdinetan, zuzenean ala zeharka, galdera horiek marrazten ari direneko sentsazioa geneukan. Argi dago emakumeon aurkako indarkeria kasuetan edo euskal gatazka armatuaren ondorioen konponbide prozesuan, egun indarrean den justizia ulertzeko eta eraikitzeko ereduak ez gaituztela asetzen.

Hori dela eta, 2019. urte hasieran, “Justizia Feminista Mintegia” izeneko gune eta prozesua zabaldu genuen beste feministekin batera gogoeta egin ahal izateko, argi guelako

¹ Nahiz eta Justizia Mintegian izan ditugun bileretan jende gehiagok parte hartu, hauexek sinatzen dugu ponentzia hau: Amaia Zufia, Arantza Urkaregi, Bittori Lantaron, Estibaliz de Miguel, Irantzu Mendia, Itziar Gandarias, Joana Etxano, Maite Barreña, Maria del Rio, Mari Luz Esteban, Nagore Larrazabal, Nuria Alzugarai eta Olatz Dañoibeitia.

² Foro Sozial Iraunkorrak gizarte zibileko hainbat entitatek osatzen duten espazio dinamizatzailea da, zeinak “gatazkaren ondorioen” inguruan lanketa zeharkakoa eta inklusiboa sustatu nahi duen. Ikus: <http://forosoziala.eus/eu/orria/nor-gara>

³ Foroko Genero Lantaldeko partaideok, Ahotsak inizatiba sortzen den 2006tik hona, bakegintza eta elkarbizitzan feministok bultzaturiko bestelako egitasmotan ere parte hartua dugu, hala nola, Ahotsak bera edo Emagune ekimenetan zein Bilgune Feministak edo Hegoa Institutuak bultzaturikoetan.

zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu orduan eta prozesua aberatsagoa izango litzatekeela, eta horretarako baldintza zela eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea eta pausoz pauso ekitea. Horrela, halako prozesu teoriko eta praktikoetan dabilzan feministei deia luzatu eta hainbat eremutako emakumeak batu ginen: mugimendu feministakoak, nazioarteko ezagutza duten lankidetzak arloko elkarteetakoak, Euskal Herrian bakearen eraikuntzan eta mugimendu misto ezberdinetan daudenak eta baita biolentzia ezberdinak pairatu dituztenak ere. Beti gogoan sufrimendu gehien jasan dutenak eta jasaten ari direnak.

Gure arlo horretako lehen ekimen publikoa 2019ko ekainaren 1ean, Bilbon, "Justizia Feminista Eztabaidagai" lelopean antolatu genuen jardunaldia izan zen. Horrekin batera, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetarako ponentzia hau ere burutzea erabaki genuen. Gure asmoa ez da, inolaz ere, posizio eta definizio argiak eta finkoak sortzea, elkarrekin pentsatuz geure praktikak eta proposamenak aberastea baizik. Geure buruak interpelatzea gizartea interpelatzeko eta bide berriei ekiteko. Edozein justiziaren oinarria gatazkak (pluralean) daudela aitortzea izan beharko litzateke. Horretan, emakumeen mugimenduak, historian zehar, beti azpimarratu eta ikusarazi ditu gizarteak aitortu ez edota ukatu dituen gatazkak.

Hortaz, Ponentzia honen helburu nagusia "Justizia Feminista" kontzeptuaz ulertzen duguna eta arlo horretan proposatu nahi dugun gogoeta eta aldarrikapena zehaztea da. « Sarrera eta testuingurua » atal honekin batera, beste bi atal zehaztu ditugu: « Gaur egungo justizia-sistemari kritika eta Justizia Feminista baterako oinarriak », eta « Justiziaren dimentsio kolektiboa eta komunitatearen papera ». Bukatzeko, prozesu honetan erabili ditugun errerereferentzien zerrenda ere sartu dugu.

Baina, hasteko, halabeharrezkotzat jotzen dugu adieraztea zer testuingurutan kokatzen dugun gure hausnarketa, euskal gizartearen hainbat gako azpimarratuz, betiere mundu mailako markoan gertatzen ari diren joeren baitan. Horrela, azken urteetan, mundu osoan zabalduz joan diren desdemokratizazio prozesuak eta eskumaren goraldia aipatu behar dira. Horri gehitu behar zaizkio krisi ekonomikoa eta ekologikoa, eta migrazioek eta gerrek eragindako pertsonen lekualdatzeen arloan aplikaturiko politikak. Horren guztiaren ondorioz, herrialdeen eta gizarte-taldeen arteko ezberdintasunak gero eta handiagoak dira eta planetaren iraupena ere kolokan dago.

Hala ere, eszenatoki hau bere sakontasun osoan ulertu ahal izateko, oldar politiko, ekonomiko eta ekologiko hori jasaten ari diren testuinguru beretan, neoliberalismoari eta autoritarismoari aurre egiten dioten herri-erresistentziek ere indarra hartu dute. Herri eta gizarte eragile hauek ez dira berriak baina logika eta estrategia berriak abiarazten ari dira, mugimenduen artean aliantzak eta ekimen bateratuak bultzatuz eta protesten eta jardueren arloan sormen ikaragarria aplikatuz. Horien arteko adibide nagusi bat mobilizazio feministak

dira, zeintzuek hainbat herrialdeetako kaleak gainezkatu dituzten azken urteetan, lekuan lekuan berariazko tankerak hartzen baina, aldi berean, mugak zeharkatzen dituzten aldarrikapen eta ekintza-kate komun gisara. Eta komunikabide eta sare sozialen papera ere nabarmentzekoa da.

Euskal gizarteari dagokionez, orain arte aipaturiko fenomenoek gain, azpimarratu beharko genuke lan handia dagoela oraindik egiteko egia, aitortza eta erreparazioaren lanketan frankismo garaitik hona. Gu geu 1936ko altxamendu faxistaren eta frankismoaren aurkako borrokan sorturiko tradizio baten bilobak eta alabak gara. Eta orainera etorrita, ETaren jardunaren amaierak eta ondorengo desegiteak ahalbidetu duen aro berrian bizi garela ere nabarmendu behar da. Egungo mugimendu eta mobilizazioen atalean, berriz, hainbat borroka-eremu aipa daitezke, besteak beste: azken hamarkadetan indartuz joan den feminismoaren jarduna; bakea eta bizikidetzaren arloan burutzen ari dena; erabakitze-eskubideen aldeko mobilizazioak; migratzaile eta errefuxiatuen eskubideen defentsakoak; pentsiodunen aldarriak; eta azaleratzen eta eraldatzen ari diren beste gizarte-eragile eta proposamenak.

Bestalde, mugimendu feministak justiziari dagokionez orain arte buruturiko lana sei eremu nagusitan multzokatu daitekeela uste dugu, bakoitzean egindakoak tamaina bera ez badauka ere⁴: indarkeria(k)⁵, errepresioa eta tortura⁶, espetxea⁷, justizia⁸, elkartasun internazionalista⁹ eta bakegintza¹⁰. Baina indarkeria matxistarena izan da, euskal gizartean ere, politika feministen jomuga inportanteenetakoa. Eremu horretan, egoera berriak bizitzen ari gara, bai ofentsiba patriarkal berritu bati, baita emakumeen eta jendartearen erantzun eta

⁴ Nagore Larrazabalek 2019ko ekainaren 1eko jardunaldian egindako "Euskal Herriko Mugimendu Feministaren protesta moduak Euskal Gatazk(et)an 1976tik gaur egun arte" izeneko ponentzian oinarrituta.

⁵ Udal, eragile zein herri mugimenduetako protokoloak, hala nola, 2013an Euskal Herriko Mundu Martxak adostutakoa (<https://www.emakumeenmundumartxa.eus/2018/07/23/erailketa-sexisten-aurkako-protokoloa-indartzen-ari-gara/>). Autodefentsa feministaren aldarriak eta ikastaroak nonahi: Iruñean Farrukas kolektiboak 2014an "Beldurra lekuz aldatuko dugu" lelopean antolatutako gaueko mobilizazioa edo zenbait herritan antolatutako brigada feministak, besteak beste.

⁶ 1980an gerra bortxaketaren kontra Ooreretako mobilizazioa edota 2018an Sandra Barrenetxearen tortura kasuaren harira, 90 berdintasun teknikarik sinatutako elkartasun gutuna (<https://www.naiz.eus/es/iritzia/cartas/sandra-barrenetxearekin-elkartasuna>).

⁷ Aizan-ek, 1984n, Carabancheleko espetxe atarian emakume presoekin elkartasuna adierazteko egindako elkarretaratzea; 2017an, Bilgune Feministak Valladolideko kartzelara antolatutako martxa (https://www.youtube.com/watch?v=wqvM_wDYm-E); urte berean, Arantza Zulueta preso egondako abokatuaren egoera salatzeko agerraldi feminista Bilbon; edo Sara Majarenas eta bere alabaren kasuaren aurrean herri desberdinetako feministek mozioak eta ekintzak.

⁸ 1976an abortatzeagatik eta abortuak praktikatzegatik Basauriko 11 emakumeen aurkako atxiloketa eta epaiketa (1977-1982); 1977an, emakumeek espetxean bizi zituzten diskriminazio eta egoera kaskarrak salatu, eta delitu "femeninoengatik" kartzelan zeuden emakumeentzat ere amnistia eskatu zen. 1996tik hona, Irun eta Hondarribiako alarde mistoen inguruko ekintzak. 2016ko sanferminetan burututako bortxaketa kolektiboaren epaiak eta prozedura judizialaren aurrean emandako erantzun irmoa.

⁹ 1981an, Greenham Common-eko emakumeekiko elkartasun ekintzak; *Mujeres de Negro contra la guerra* sare internazionalistan parte-hartzea; Latinoamerikako herrialdeetako gatazkekin elkartasun ekimenak, hala nola, 2016an, Berta Cáceresen erailketa salatzeko ekintzak.

¹⁰ 1982an, OTANen kontrako ekintzak; 1985an, Orion emakume gazteek burututako kanpaldia; 1986an, Eibarreko arma fabrikaren aurkako martxa; 2017an, Santurtziko portuan gerra eta armen salerosketaren aurka egindako martxa; edota 2018an, "Feministok gerrari planto!" lelo pean egindako martxa antimilitarista.

erreakzioei dagokienez ere, non lorpen txikiak eta handiak dauden, esaterako, indarkeria kasuen aitortza soziala dela-eta. Baina, badaude ere kezka eragiten dituzten datuak, hala nola:

- a) Eremu legal eta juridikoari dagokionez, Espainiako estatuko 1/2004ko Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género Lege Organikoaren mugak. Estatu Frantsesean, LOI n° 2018-703 du 3 août 2018 renforçant la lutte contre les violences sexuelles et sexistes jasotzen dituen eta Euskal Herrian, berriz, Nafarroako 14/2015 Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak “feminizidioa” eta “erreparazioa” moduko kontzeptuak aintzat hartzen ditu; EAEn, aldiz, ez dago berriazko legedirik, baina 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa delakoan badaude emakumeen kontrako indarkeriari hainbat aipamen, bereziki, VII Kapituluari.
- b) 2016. urtean, Iruñeko Sanferminetako bortxaketa kolektiboaren inguruko tratamendu mediatikoak eta juridikoak euskal gizartean mamituz zihoan justizia patriarkalarekiko sumina gorpuztea ekarri zuen. Kasu hau mugarri bihurtu da, legedi eta epaitegiekiko konfiantza eza eta babesgabetasun sentimendua sakonduz eta, eraso matxisten eta emakumeak errudun bihurtu eta birbiktimatze joeren aurrean, inpunitate eta zilegitasun sistemak agerian utziz.

Erreakzio eta gizarte-antolaketa mailan, berriz, gizarte-eragile eta mugimenduen eraginez garatuz joan diren ekimenak azpimarratu behar ditugu. Izan ere, epaitegietara begira bakarrik egon gabe, azken hamabost urteotan, indarkeria matxisten aurkako ekimen eta protokoloak sortzeko lanari ekin zaio, prebentzio eta formakuntza atalean aurrerapauso handiak emanez, autodefentsa feminista tailerrak eta maila ezberdinetako protokoloak, besteak beste. Horien guztien ondorioz, jakintza handia metatzen ari da herri-mugimenduetan, baina konplexutasuna eta zailtasunak ere ez dira gutxi. Ekainaren 1eko Jardunaldian, Joxemi Zumalabe Fundazioko lagunek horietako batzuk partekatu zituzten, hala nola, komunitatearen erantzun ez positiboak, mugimendu feministarentzat dakarren lan gain karga, erresistentzia aktiboak, konplexutasunaren aurrean paralizatzea, gaiari behar duen denbora eta baliabideak ez eskaintzea edota erantzunik ez dugun (edo erantzun bakarra ez duten) galdera berrien aurrean kokatzea.

Lehenago esan bezala, gure gizartean, euskal gatazka armatuaren ondorioen kudeaketa gako nagusia bihurtu zaigu, bakea eta bizikidetzera erakitzeke erronkan. Prozesu horrek biolentzia-dispositiboak desagitearekin eta eragindako minen eta zaurien aitortzarekin lotura du, eremu horretan ere justizia prozesuak erakitzeke. Ezaguna da prozesua motela izaten ari dela, batez ere, Espainiako eta Frantziako estatuen borondate faltagatik. Horiek

horrela, euskal gizartea bere tresna propioekin eraikitzen ari da prozesua. Argazki azkar bat eginez, hauek lirateke datuak:

- 1) Espainiako Estatuko Barne Ministeritzak jasotzen dituen datuen arabera, ETAk 853 pertsona hil eta milaka dira zaurituak edota haren mehatxupean bizi izan direnak, gehientsuenak instituzionalki, legalki eta ekonomikoki aitortuak. Hala ere, badaude oraindik aitortza sentitu ez dutenak eta AVT-Asociación Víctimas del Terrorismo delakoak aipatzen du 300 kasu daudela argitzeke.
- 2) Estatu-biolentziaren datuak azken sei hamarkadotan: 40.000 atxilotu politiko, 6000 torturatutik gora, 7500 preso politiko, 104 pertsona poliziak hildakoak eta 83 estatu-terrorismo kasuak (talde parapolizialen esku edo gerra zikinaren ondorioz). Bestela, 50 pertsona sorterrira ezin itzulita daude¹¹.
- 3) Presoei, Espainiako legedi arrunta baino “salbuespenezko legedia” deitu izan zaiona ezartzen zaie: urruntzea eta sakabanaketa, zigorren batuketarik eza, zigor osoen beteketa, graduen aplikazioa, birgizarteratze politikarik ez egotea...
- 4) Poliziaren edo talde paramilitarren eskutik hildako, zauritutako eta torturatutako pertsonen kasuan, Egiari Zor Fundazioko kideek, ekainaren 1eko Jardunaldian, hauxe adierazi zuten:

“La justicia ordinaria o convencional no ha actuado de forma proporcional entre los distintos agentes violentos y tampoco entre las víctimas. La mayoría de los responsables de estos crímenes gozan de impunidad. Sobre otros actores violentos ha caído todo el peso de la Ley. La mayoría de las víctimas de estos crímenes no han podido jamás ejercer su derecho a conocer la verdad: o porque no se investigó, o no se hizo de manera eficiente, o porque simplemente las versiones oficiales vertidas para justificar actuaciones contrarias a los DDHH eran concluyentes a la hora de determinar existencia o no de delito”.

Baina ez genuke sarrera hau amaitu gura, bertan aztertu ditugun edukien arteko loturei erreparatu gabe:

- a) Bakegintza arloan, eragile edo jarduteko ildo berriak sortu dira feminismoan. Eragile berrien artean, Ahotsak, Emagune edo Foro Sozial Iraunkorreko Genero Lantaldea aipatu daitezke. Ildo berrien artean, Euskal Herriko Bilgune Feministak, Hegoa Institutuak, Emakundek edo Argituz-Giza eskubideen aldeko elkarteak bultzaturiko hainbat ekintza/ikerketak. Lehenago esan bezala, eragile eta ildo horien ezaugarri garrantzitsu bat Euskal Herriko emakumeek jasan/jasaten

¹¹ Sortu-ko Presoen Batzordeak pasa den abuztuko G7-ko Kontragailurrean emandako datuak.

dituzten eraso eta egoera biolento guztiak batera jorrazeko joera litzateke. Hauxe argi gelditu zen, adibidez, 2016ean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak Gasteizen antolatu zuen “Feministok Prest. 11 eraso, 12 erantzun. Vuestras violencias tendrán respuesta” manifestazioan; edo 2019an, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxak Bilbon antolatu zituen XI Nazioarteko Topakeketetako “Feministon Herria” egunean, “Feministen bakea eraikitzen” mahai-inguruan.

- b) Euskal gatazkaren testuinguruan, bai Espainiako bai Frantziako estatuetan erabiliak izan diren tresna errepresiboek eragin orokorra izan dute eta dute, bai jendartean bai justizia eremuan nagusituz joan den logika punitibista zabalduz, arlo eta gai guztiei aplikatzen dena, indarkeria matxistari ere bai. Txanponaren beste aldean, estatuetik eta bere erakundeetik konfiantza eta legitimitatea ukituta daude herri sektore zabaletan, eta horrek hurrengo puntura eramaten gaitu.
- c) Euskal gizarteak, arrazoi ezberdinak tarteko, auto-antolaketarako joera handia izan du eta du. Erakunde publiko eta pribatuetatik kanpo, komunitatea eta gizarte zibila aktiboa da oso eta, bereziki instituzioen ekimen eza edo ekimenetik desadostasuna egon denean, joera ohikoenak komunitatetik alternatibak eraikitzea izan da. Izan ere, gerora erakundeek bere egin ohi dituzten proposamen eta irizpide ezberdinak abiatu dituzte, jendarte berri, justu eta askeagoa entseatzuz. Halaber, elkartasun dinamika zabalak erditzeko eskuzabala eta gaitua den gizartetzat jo dezakegu. Horrek guztiak ehundura sozial sendoa trinkotzea ekarri du, nahiz eta gurean ere egungo gizarteen joera pasiboak eta indibidualistak ere antzeman.

Konbentzituta gaude, gatazka ezberdinak aztertzerakoan, feminismoak justizia arloan egindako eztabaidek eta hausnarketek lagunduko digutela puntu komunak eta sinergiak bilatzen, eta baita bakegintzaren gaia agenda feministaren erdigunean kokatzen. Eta garrantzitsutzat jotzen dugu edozein motatako eraso bortitzaren aurrean egon daitezkeen erantzun anitzak kontuan hartzea, aniztasun horren barruan bat egin baitezakete inpunitatearen aurkako jarrerak eta punitibismoaren kontrakoak. Prozesu honetan, funtsezkoa da ere nazioarte mailan dauden esperientziak eta feministek duten eskarmentua kontuan hartzea,

GAUR EGUNGO JUSTIZIA-SISTEMARI KRITIKA ETA JUSTIZIA FEMINISTARAKO OINARRIAK

Atal honetan sakontzen hasi baino arinago, egungo justizia-sistemaren azpian zapalkuntza egitura ezberdinak daudela gogoratu behar dugu (patriarkatua, kapitalismoa, arrazakeria, homofobia...), guztiz zeharkatzen dituztenak justiziaren objektua, subjektuen definizioak eta tresnak.

Egungo ereduari, justiziaren objektuari dagokionez, justizia-sistemak¹² “errudunaren” zigorra kokatzen du erdigunean; erantzukizun kolektiboa, biktima babestea eta berarekiko elkartasuna bermatzea lehentasuntzat hartzen ez dituela. Gainera, sistemaren berezko zigor-logika hori areagotuz doa, gehiegizkoak edo muturrekoak diren zigorrak gero eta gehiago ezarriz.

Justiziaren subjektuei erreparatuta, jakin badakigu horien definizioan historikoki hainbat bazterturik geratu direla. Feminismotik giza-eskubideen definizioari egindako kritiken abiapuntua Frantziako Iraultzan eta “Gizonaren eta Herritarraren eskubideen Adierazpenean” koka dezakegu. Adierazpen horrek, emakumeak ez ezik, atzerritarrak eta desjabetuak bezalako subjektuen eskubideen diskriminazioa ere finkatu zuen. Horrek eragina izan du mendebaldeko justizia-sistemaren eraketan eta aplikazioan, non emakumeek, atzerritarrek, desjabetuek eta beste subjektu batzuek bigarren mailako hiritar bezala tratatuak izaten jarraitzen duten. Hortaz, esan dezakegu, egungo justiziak ez duela unibertsala izateko inolako bermerik eskaintzen, egiturazko zapalkuntzak eta erantzukizun kolektiboak kontuan hartu gabe herritarren jokabideak modu indibidualean epaitzen dituelako.

Bestalde, justizia-sistemaren tresnei dagokionez, eta zehazki zigorra betearazteko neurrietan arreta jarritz, espetxea eta bere inpaktuak aipatu behar dira. Kartzela sistemaren inguruko eztabaida geroz eta presenteago dago mugimendu feministaren baitan, arrazoi desberdinak direla medio, besteak beste: giza-eskubideak sistematikoki urratzen diren espazioa delako, gizatasuna eta pertsonon duintasuna deuseztatzen dituelako, “seguritatearen” izenean negozio iturri bihurtu delako, pertsonen arteko botere harremanak erreproduzitu eta indartzen dituelako, bortitza den egitura sozial baten isla delako eta matxismoa eta maskulinitate hegemoniko eta erasokorraren “eskola” delako.

Kartzelaren ezaugarri horiek kontuan hartzen baldin baditugu, kartzelari formalki onartzen zaizkion helburu birgizarteratzaileak ez dituela betetzen ikus dezakegu. Izan ere, zigor-sistemak zein espetxeak betetzen duten helburua sistemaren oinarri eta baloreak iraunaraztera mugatzen da. Horrela, hortik aldentzen dena “erruduntzat” hartu eta dagokion zigorra jasoko du, gainontzekoengan araututako eta baimendutako jokabideak zeintzuk diren

¹² Ponentzia honetan, zigor-justizia aztertzea izan dugu helburu; dena dela, gizarte patriarkal batean bizi garen heinean, indarrean dagoen justizia-sistema osoa aztertzeke beharraz jakitun gara.

ezarriz. Modu honetara, zigor-sistemak jendarte osoa mehatxatzeko eta “hezteko” funtzioa betetzen du.

Hortaz, feminismitik egungo justizia-ereduari egiten zaizkion kritika hauek eta egin daitezkeen beste kritika batzuk oinarri, parez pare dugun erronka bati erantzun nahi diogu: egungo justizia sistemari alternatibak bilatzea, justizia ulertzeko eta praktikara eramateko bestelako moduak adostuz eta indartuz.

Egungo justizia-sistema aldatzeko edota ordezkatzeko erronkaren aurrean gaudela eta berau birpentsatzeko beharraz jabeturik, honako gaien inguruan eztabaida zabaltzea proposatzen dugu:

1. Egungo justizia-sistemaren oinarri eta baloreak kolokan jarri eta irauli

Beste justizia eredu berri baten oinarriak eraikitzeke beharraz sinetsita, feminismoaren azterketa kritikoek gure pentsamenduaren logikak aldatzeko duten ahalmenean oinarritzen gara. Aldi berean, uste dugu justizia-sisteman aldaketak sortarazteko abagune aproposan gaudela, emakumeon kontrako indarkeriaren aurrean justizia ezaren auziak inoiz baino gehiago zabaldu baita jendartean azken boladan.

Gure ustez, justiziaren helburua haxe izan beharko litzateke: egindako minaren aitortza eta erreparazioa, eta honekin batera, berriro ez gertatzeko bermea. Ildo horretatik, zigorraren logika, eta bere adierazpen nagusia den kartzela barne, kolokan jartzen duen eztabaidari ekin behar diogu. Jendarteak, eta askotan feministok ere, espetxea gatazka sozialei erantzuteko erakunde gisatzat hartzearen ideia ontzat eman du/dugu. Hala ere, kartzelen existentzia eta benetako jendarte demokratikoa bateraezinak direla aitortu behar dugu. Kartzelak erantzun sozial gisa sostengatzen dituzten ideiak eta interesak sakonki berraztertu behar ditugu, egun feminismo barruan ematen ari diren kartzelaren gaineko planteamendu abolizionistaren aldeko eztabaidak kontuan hartuz.

Hala ere, komeni da esatea ohartzen garelako guretzat justizia eredu ideala eta errealtatearen artean dagoen aldea handia dela. Askotan sentitu daitezkeen mina, amorrua edota mendekurako gogoaren aurrean, zigorra (espetxea) ezartzeko beharra ateratzen zaigu irtenbide gisa. Zigor logikatik aldentzen diren bestelako ereduak bilatzea, zaila izanik ere, norberarengandik hasi behar direla jakin badakigu. Segurtasuna, ordena eta zigorraren diskurtso markoek gure jendartean hain errotuta eta hedatuta daudenez, beste eredu batean pentsatzea zaila egiten zaigu, ideala dena eta errealtatean sentitzen dugunaren artean dagoen distantziaz ohartuz.

Eredu berri bat eraikitzeke bidean, garatu beharreko prozesuari garrantzia ematea ezinbestekoa da. Prozesu honetan gure buruari zein justizia mota nahi dugun galdetzearekin

batera, egunerokotasunean ematen diren indarkeria egoeren aurrean erantzuteko dugun moduez hausnartu behar dugu. Gainera, aldaketa prozesu honetan zehar justizia eredua unibertsala izan behar dela presente izatea garrantzitsua deritzogu, hau da, eraldaketarako ibilbidea denontzako eta denon artekoa izan behar dela; pribatizazioak eta kolektibo batzuen bazterketa emateko arriskua saihesteko helburuarekin. Honek justizia-sistemak baztertuta edota diskriminatuta dituen beste hainbat eragileekin batera aliantza estrategikoak bultzatzeko beharraz ohartarazten digu.

2. Indarrean dagoen zigor-kodea eta prozedurak deseraikitzearen alde egitea

Biolentzia matxistaren aurrean zigor-kodea gero eta gehiago gogortzea, kasuen judizializazioa edota kartzela zigorrak handitzeak ez dute lortu erasoekin amaitzea. Are gehiago, biolentziaren areagotze garaian gaudela esan daiteke, “erreakzio patriarkal” gisa izendatu den joeraren markoan. Ondorioz, punitibismoa gailentzen da eta emakumeen bizitzen eta gorputzen kontrolean oinarritzen diren jarrera eta diskurtso autoritarioak nagusitzen dira.

Esan dugun moduan, espetxeak ez ditu betetzen bere helburuak omen direnak (birgizarteratzea, delituak prebenitzea eta berriro ez direla errepikatuko bermatzea); aitzitik, kartzela, jendartearen sektore zaurgarriak eta estigmatizatuak kriminalizatzeko tresna da. Eta ezin dugu ahaztu, sektore horietan kokatuta daudela generoaren aginduek betetzen ez dituzten emakumeak (“noraezean dabilzanak”, “gaiztoak” edo “desnaturalizatuak” moduan hartuak direnak). Izatez, espetxea, hegemonikoak diren binarismo sexuala eta genero-rolak indartzen dituen erakundea da. Kartzelaren benetako funtzioa sinbolikoa eta ekonomikoa da. Alde batetik, ekonomia kapitalistaren interesen zerbitzura dago, giltzapean sartzeak etekinak sortzen baititu. Eta bestetik, kartzelen funtzio sinbolikoari dagokionez, segurtasun-ilusio kolektiboa sortzen du, gure jendartearen sektore baztertuenak espetxeratzearen egiturazko biolentzia jasotzera eramaten dituen bitartean.

Mugimendu feministak metatu duen esperientziak erakusten du indarkeria matxistak jasan dituzten eta horren salaketa formala egitea erabaki duten emakumeei babesa eskaintzea baino, justizia-sistemak emakumeen arrisku eta zaurgarritasun egoera areagotzen duela. Honek, feministon artean, salaketa judiziala jartzea kasu guztietan beharrezkoa den ala ez eztabaidatzera eramán gaitu. Alde batetik eta justizia-sistemaren prozedurak eta mugak ezagututa, salaketa formala jartzea onuragarria ote den zalantzan jartzen dutenak daude. Bestetik, zailtasunak zailtasun, salaketa jartzea ezinbestekotzat jotzen dutenak ere badaude; erasotzaileek ez dutelako normalean onartzen haien erantzukizuna eta biktimak kolektiboaren babesa izateko bidea dela uste delako.

Agerian dagoena da justizia-sistemaren prozedurek indarkeria jasan eta salaketa jartzea erabaki duten emakumeak bigarren biktimizatzen dituztela. Askotan ez direlako errespetuz tratatuak izaten, eta gehienetan, emakume horien egia eta sinesgarritasuna modu sistematikoa zalantzan jartzen delako. Are okerragoa dena, justizia-sistemaren aurrean epaituak izaten direnak maiz emakumeak beraiek direla. Honekin batera, askotan emakumeen kontakizuna berresten duten aditu ezberdinei (osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetako arlokoak kasu) ez zaiela sinesgarritasunik aitortzen agerikoa da.

Horrela, delituak sortutako kalteari erantzuna emateko indarrean dagoen zigorraren zentralitatean oinarritu beharrean, mina jaso duten pertsonen beharriak bermatzeko eta prozesuak berak izaera erreparatzailea izateko justizia-sistemaren prozeduretan ere aldaketak sustatzeko premia dugu. Aurrekoarekin batera, kaltetuek bizi duten prozesuan begirada jartzea garrantzitsua da, bakoitzaren denborak eta pausuak emateko haientzat aproposak diren uneak kontuan hartuz. Erreparatzaileak izan daitezkeen bideak zeintzuk diren galdetu behar zaie eta jasotzen diren erantzunen arabera neurriak hartu, egiaren eta egin zaien minaren aitortzarako espazioak bermatuz.

Azken honi garrantzia berezia eman nahi diogu. Izan ere, egia bakarrik uler daiteke gertaeraren aitortza eta sozialki partekatze prozesu baten baitan ulertzen baldin badugu, alegia, gertatutakoa sozialki onartzen baldin bada. Zoritxarrez, gaur egun, justizia-sistemak "arrazoia" ematen ez badizu sententzia baten bitartez, biktinek bizi izandakoa ez da egiazat hartzen, hots, egun egia instituzionalak edo judizialak du sinesgarritasun osoa.

3. Justizia eremuan feminismotik diskurtso berriak kokatu

Dakigunez, legedian eta nagusia den diskurtso juridikoan posizio maskulinoa nagusitzen da, arlo publikoan, orokorrean, gertatzen den bezala. Horregatik, zuzenbide arloan ematen den borroka sinbolikoa garrantzitsua ere bada, subjektu kolektibo batek diskurtso juridikoan kokatzeko duen eskubideak bermatzearen aldeko borroka bezala ulertuz.

Feminismoarentzat, legedia sinbolikoki eta materialki eraginkorra izango da, pertsonen kontzientzia eraldatzeko eta baita subjektu diskriminatuak eta beren eskakizunak izendatzeko, ikusarazteko eta erantzuna emateko ere baliagarria den heinean. Eremu diskurtsiboan borroka egiteak duen garrantziak, justizia arloan erabiltzen eta erabili nahi dugun hizkuntza kontuan hartzea dakar, esate baterako, logika binario-dualistak (gaizkigilea/biktima, edo gaizkigilea/hiritar errespetagarria, besteak beste) gainditu ahal izateko.

4. Munstroak eraikitzearen joera ekidin

Espetxeak eta zigor-sistema osoak, izendatzeko, subjektuak sortzeko eta segurtasuna bezalako kontzeptuei edukia emateko gaitasun handia dute. Jazarri eta zigortu behar diren

subjektuak “besteak” gisa definitzen ditu, modu horretan logika binarioa indartuz. Binarismo horrek, alde batetik, arazo sozialen egiturazko jatorria aztertzea oztopatzen digu, eta bestetik, arazo horiekiko dugun erantzukizunetik eta beraien gainean kolektiboki eragiteko dugun gaitasunetik aldentzen gaitu. Menderatze-prozesuek gutxietsia eta kontrolatua izan behar duen “beste” berezitu baten eraikuntza behar dute. Patriarkatuak “bestetasuna” eraiki du gizonezkoek hautemandako “besteen” ideiatik, kasu honetan, emakumeak, atzerritarrak eta baita desjabetuak bezalako beste subjektuak ere. Ildo horretatik, feminismoarentzat funtsezkoa da “bestetasun” hori deuseztatzea, “munstroen” ideia ere desegitea, eta “beste” berri batzuk ez sortzea, ezta adibidez feminizida edo erasotzaileen kasuan ere.

5. Biktima erdigunean kokatu

Justizia feministaren erdigunean biktima kokatu behar dugu. Biktimizez hitz egiten dugunean, ez dugu ondoko bereizketa dikotomikoa eta estatikoa egin nahi: “biktima tutelatua” versus “biktima eragilea”. Gaur egun, biolentzia matxistari dagokionez, eraikitako biktimaren ereduak logika dikotomikoa indartzen du. Alde batetik, indarkeria jasan duena etiketatu eta etengabe berbiktimizatzen duen biktima-eredua dago. Kasu honetan, biktimaren izaera eta jokaerarekin lotutako patroik homogeneous sortzen da, eta biktima eragilea baldin bada, hau da, prozesuan ahaldunduta agertzen baldin bada, bere esperientzia eta hitza kolokan jartzen da. Beste aldetik, badago beste biktima-eredu nagusi bat, zeinak mina gutxietsi, txikiagotu edo minari garrantzia kentzen dion eta egoera gairatzeko duen gaitasuna soilik erdian jartzen duen.

Bi patroik hauek egitura patriarkala erreproduzitu dezakete eta, praktikan, biktimak behar duen babesaren eta bera ahaldunduzko tresnak sortzearen aldeko apustuaren arteko tentsioak indartu. Egon badago bi posizio horien arteko continuum aldakorra. Gainera, identitate finko eta mugiezinak baino, pertsonen bizitzan zehar aldatzen diren posizioak dira. Ildo horretatik, biktimaren esperientziaren inguruan ia eksklusiboki eratutako “betirako biktima” eta beti ahaldunduta eta suspertzeko prest agertu behar duen “biktima eragilea”-ren arteko oposizioan gauzaturiko dikotomia apurtzea ezinbestekoa da.

6. Ekitatea, erantzukizunaren aurrean

Justizia-sisteman, erantzukizun-printzipioa ekitate-printzipioari gailentzen zaio; emakumeek justiziaren ideia eta praktikarekiko dugun esperientzian, aldiz, ekitatea erantzukizunari gailendu ohi zaio. Ekitate-printzipioan, oinarritzakoa da ekintzen testuinguru kontuan hartzea. Honela, nahiz eta legea ez betetzeagatik erruduna izan (esate baterako, gose delako lapurretan dabilena edo pertsona migratzaileei/errefuxiatuei legez kanpoko laguntza ematen diena,...), egoeraren baldintzak ere baloratzen dira; hau da, zaugarriaren alde jotzen

da, nahiz eta arrazoi (legala) ez izan. Erantzukizun-printzipioan ez da zaurgarriaren egoera kontuan hartzen eta, legearen arabera erroa bada, zigortua izango da.

Erantzukizunaren inguruko hausnarketa interesatzen zaigu, ez hainbeste legearen arabera delitua den ala ez, baizik eta ekintzek egindako mina erreparatzeari begira, eta ez bakarrik maila indibidualean, baizik eta ikuspegi kolektiboan eta erantzunkidetzan oinarrituta. Gure inguruan, biktimaren indibidualizazioak eta isolamenduak, hau da, elkartasun eta babes sozial ezak mina jaso duen pertsona eraman dezake, bide bakar moduan, zigor-sistemara jotzera eta, era horretan, zigor-logikek, eta baita populismo punitiboak ere, gero eta pisu handiagoa irabaztera. Hortaz, biktimaren indibidualizazio eta isolamendu hori ekiditzeko komunitate eta gizarte mailako laguntza sare zabala ehuntzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Honek, zigor-logikatik beste logika-mota positiboago eta eraldatzaileagoetara urratsak ematen lagundu baitezaguke.

7. Zigor-justiziatik aldentzen diren justizia kultura eta praktikak sakondu

Justizia nozio eta praxi ezberdinak daude, berauek definitzerakoan eraikitzen den posizio adina (ideologia, kultura, helburuak, interesak, proiektu politikoak, botere harremanetan duen lekua, eta abarren arabera). Egun mahai gainean dauden proposamen ezberdinak horren adibide lirakeke: gailentzen den eta zigorraren logikan oinarritzen den justizia punitiboaz gain, justizia errestitutiboa eta eraldatzailea bezalako beste ereduak gero eta gehiago hitz egiten da. Guk geure justizia nozio propioa(k) zein den/diren definitzerako orduan eredu ezberdinen ezagutzak hausnarketarako elementuak eskaini ahal dizkigula uste dugu.

Justizia errestitutiboaren definizio zehatza ematea ez da erraza, ez baitago eredu bakarra. Dena dela, zigor-jardueran eta zigorra gauzatzeko eran biktimari garrantzia gehiago eman nahi diola esan beharra dago. Justizia errestitutiboa, delitu baten ostean justizia egiteko bide bat da; banakako kaltea, harreman-kaltea eta gizarte kaltea konpontzera bideratuta dagoena. Eredu honek aldean parte-hartzea bultzatu egiten duela azpimarragarria da, horren adibide dira tresna errestitutibo tradizionalak, esaterako bitartekaritza. Filosofia honen oinarrian pertsonen duintasunaren errespetua dago, arau-hauslea eta biktima herritar arruntak direla eta gatazken konponketan modu arrazionalen parte hartzeko gaitasuna dutela onartzen da.

Justizia eraldatzaileak justizia errestitutiboaz haratago heldu nahi duen ereduak litzateke, batez ere biktimaren erreparazioaren ikuspuntutik. Helburua ez litzateke soilik indarkeriak biktimari eragindako kaltea konpontzea, baizik eta indarkeria bera posible egin duten baldintzetan (materialak eta sinbolikoak, kulturalak, sozialak, politikoak, ekonomikoak...)

eragitea, horiek eraldatzeko asmoarekin. Arreta gehiena indarkeriaren erroetan eta hori errepikatuko ez den bermean jartzen duenez, esan dezakegu prebentziorako orientazio nabariagoa duela.

Justizia eraldatzailea, justizia errestitutiboa ez bezala, testuinguru ez instituzionaletan garatu den proposamena da, hau da, talde antolatuek ardura pertsonala eta kolektiboa hartuz, gertuko komunitateetan martxan jartzen ari diren prozesuak dira, zigor-sistemearekin inolako kontakturik izan gabe. Justizia errestitutiboari dagokionez, aldiz, proposatzen diren tresnak eta prozesuak zigor-sisteman txertatzen ari dira delitu zehatz batzuekin, posiblea denean kartzela-zigorren erabilera ekiditeko eta baita biktimari paper aktiboagoa emateko ere. Eredu honetan, komunitatearen ardura eta egiturazko arazoei aurre egitea ez da jorratzen.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu motibazio politikoa izan duen indarkeria kolektiboa eman den hainbat testuingurutan *justizia trantsizionalaren* ideia eta praktika garatuz joan dela nazioartean. Gurea ere horrelako testuinguru denez, horren esanahiaz hausnartzea lagungarria egin ahal zaigu. Justizia trantsizionala jendarteak gatazka armatu batetik bakera edota erregimen zapaltzaileetatik demokrazietara igarotzeko darabilten prozesu politiko eta sozialari deritzo. Horretarako abiapuntua zera da: gatazkan eman diren giza eskubideen urraketa larriak ezin direla ahaztu eta, aldiz, bakegintzaren eta kultura demokratikoaren bidea erraztu dezaketen baliabideak jartzea ezinbestekoa dela. Oro har, justizia trantsizionalaren tresnek lau jarduera-ildo jarraitzen dituzte biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak bermatzeko: egiaren batzordeak, ekintza judiziala, erreparaziorako programak eta indarkeria berriro gertatzeko arriskua ekiditeko erreforma politiko-instituzionalak. Tresna hauek generoarekiko "neutrotzat" jotzen diren arren, kontuan hartu behar dugu, alde batetik, gatazka armatuek eta zapalkuntzek emakume eta gizonengan eragin desparekoa dutela eta, bestetik, egia, justizia, erreparazioa eta errepikatuko ez delako bermeetarako emakumeon eskubideak behin eta berriro urratuta ikusten ditugula. Gure testuinguruan justizia trantsizionalaren eremuan koka daitezkeen praktiken aplikazioan, beraz, ezinbestekoa da horien joera patriarkalez ohartzea eta horiei aurre egitea.

8. Justizia prozesu bezala ulertu eta bere dimentsio kolektiboa aldarrikatu

Justizia, banatzen den zerbait baino, eraikitzen den zerbait deneko ideiarekin bat egiten dugu, eta beraz, subjektu ezberdinen parte hartzea eta tresna ezberdinak (materialak, kulturalak...) izatea eskatzen dituen prozesua dela onartzen dugu. Justizia, erakundeen logikatik aztertuta, justizia "emateari" edo banatzeari lotuta dago, non pertsona gutxi batzuek

har dezaketen parte. Aitzitik, justizia, erakundeetatik kanpo kokatzen badugu, pertsona guztiek parte har dezakegun espazioez hausnartu dezakegu.

Historian zehar eta beste kulturetan barna egon diren justizia ulertzeko eta eraikitzeko moduak aztertuz gero, badago eredu ezberdin horien izaera eragiten eta bereizten duen kontu nagusi bat: justizia bera eta prozesua norbanakoengan kokatua egotea ala kolektibo gisa ulertzea. Egungo justizia-sistemak norbanakoa gizartetik “bereizten” du, botere egitura eta baldintzak bazter utziz eta arazoak indibidualizatuz. Aldiz, elkertasunean oinarritzen den justizia, halabeharrez, kolektiboa da. Horrela, prozesu osoan, gatazka edo arazoa aztertzean, kudeatzean eta erreparatzean, dimentsio kolektibotik jarduten da, prozesu kolektibo gisa ulertuz. Gainera, arreta behinena biktimari jartzen zaio, ez eraso egin duenari, eta helburu nagusia ez da zigorra jartzea, baizik eta biktima babestea eta gertatu dena erreparatzea, horretarako, kontsentsuz ezarriak diren bideak erabiliz. Horrela, gure sisteman gertatzen denaren kontra, mina jasan duenak sentitu egingo du komunitate osoa berarekin dagoela.

Esandakoagatik, justizia instituzionaletik harago, jendarteak, orokorrean, eta, bereziki, hurbilena den komunitateak jokatu behar duen paperaz sakondu eta sustatu behar dugu. Hain zuzen, komunitate mailan posible izango dugu elkertasun eta erantzukizun kolektiboetan oinarrituriko beste logika batzuk birpentsatzea eta garatzea, eta biktima zein biktimarioa prozesuaren subjektu aktibo bihurtzea.

Aldi berean, gure begirada eta jarduna lekutzeari ere garrantzitsua deritzogu, gure testuingurutik eta testuingururako aritzea, eta geure jendartea osatzen duten komunitate ezberdinak aintzat hartuta: generoa, adina, klasea, jatorria, sexualitatea, nazio-identitatea, hizkuntza eta beste makina bat faktoreren arabera ezberdintzen gaituen jendartea baikara.

JUSTIZIAREN DIMENTSIO KOLEKTIBOA ETA KOMUNITATEAREN PAPERA

Aurreko atalean egungo justizia-sistemaren kritika eta justizia feministaren oinarriei begira jarri ondoren, oraingo honetan, justizia instituzionaletik haratago begiratzeko ariketa elkarbanatu nahi dugu. Hau da, justiziaren dimentsio kolektiboa aitortzea eta komunitateak duen paperaz hausnartzen hastea.

Justizia tokitzeaz ari gara, gertuko komunitatean txertatzeaz, eraldatu beharreko elementuak identifikatuz, elkarbizitza ona eta harreman baketsuak berreskuratzeko. Baina ez dugu planteatzen justizia eta erantzunak pribatizatzea. Erakunde publikoen ardura ezinbestekoa da, batez ere, emakumeek pairatzen ditugun injustizien aurrean neurriak hartzea da premiazkoa. Hori exijitzea ere bada komunitateak duen zeregina.

Komunitatea, zer da hori?

Ez da honako lanaren helburua komunitatearen definizio itxi bat egitea. Bai berriz, justizia eredu berri baten sorrerari begira, gure gaur egungo jendartetik, eremu sozialetik egin daitekeen ekarpena zehazte aldera, komunitatea eragite esparru gisa marraztea.

Modu orokor batean, komunitatea hainbat elementu komun (interesak, zeregina, helburuak, ohiturak, kokapen geografikoa, hizkuntza...) partekatzen dituen jende multzo gisa definienezake. Elementu horiek parte hartzaileen identitatean eta kohesio mailan dute eragina. Komunitate batzuk borondatez sortzen dira, beste batzuk berez. Bestalde, komunitatea geruza edo maila ezberdinetan gara daiteke; oso maila lokal edo txikitik abiatuta, Euskal Herriko edota eremu zabalagoetaraino.

Komunitateak batzen dituen interes horien inguruan elkarlanean aritzeko antolaketa maila ezberdinak gara daitezke. Zentzu honetan, komunitatea antolatuagoa, politizatuagoa (botere egiturak hauteman eta iraunarazteko edo aldaketarako proiektuak), biolentziarikiko sensibilizatuagoa... egon daiteke edo ez.

Kolektibitate mota asko daude. Honela, komunitatearen parte ulerenezake auzo edota eraikin bateko bizilagunak, herri bat, elkarte edo sare ezberdinak, enpresa edo lantokia, ideologia bera partekatzen dutenak, erakunde ezberdinetako partaideak, odolezko komunitateak. Era berean, kontsumo talde bat, hezkuntza zentro bateko komunitatea (irakaslegoa, guraso elkarte...) edo eta kirol elkarteak. Bestetik, komunitatearen parte dira mugimendu sozial eta proiektu eraldatzaileak.

Aipatutako komunitatea osatzen duten geruza ezberdinetan, subjektu ezberdinak elkar-ekintzan ari dira. Zentzu honetan, gero eta dinamika partekatuagoak, eraldaketarako eraginkorragoa. Norabide berean, subjektu bakoitzeko eragin esparrua ezberdina izango da.

Kontuan hartu beharko genuke bestalde, hiri edo landa eremuetako konposizioa zein antolaketa moldeak, asko aldatzen direla Euskal Herrian. Bestetik, gaur egungo indibidualizazio prozesuak eta teknologia berriak edota sare sozialen eragina kontuan hartuta pentsatu behar dugu komunitatea. Konplizitateak, elkartasuna, fideltasunak, harreman afektiboak eta emozio anitzek (beldurra, gorrotoa, maitasuna...) zeharkatzen dituzte harreman komunitarioak.

Historikoki, komunitatearen eraikuntzan, mantentzean, saretzean, transmisioan... emakumeek rol garrantzitsua izan ohi dute. Horregatik, hainbat gatazkatan edota dominazio mekanismo ezartzeko, emakumeak erasotzen dira komunitatearen indarra desegiteko asmoz.

Azkenik, arreta jarri nahiko genuke komunitatearen inguruan eman daitekeen idealizazioan. Komunitate ez da espazio neutroa, ezta eraldatzailea berez -nahiz eta bertan eratzen diren subjektu eraldatzaileak-. Jendartean ematen diren botere harremanek eta gatazkek zeharkatzen dute komunitatea.

Mugimendu Feminista, komunitatearen parte

Aipatu den bezala, komunitatearen parte dira mugimendu sozial eraldatzaileak, beraz, mugimendu feminista ere. Jakina da mugimendu feminista anitza dela, eta zentzu honetan, modu ezberdinetan eragin dezakeela komunitatean, talde bakoitzak dituen helburu zein eragin eremuen arabera. Honela, mugimendu feministak bi funtzio nagusi joka dezake komunitatean eragiteari begira:

- Komunitate zehatz baten partaide gisa, eta beste eragileekin elkar lanean, komunitate hurbil horretako eraldaketa prozesuan.
- Modu orokorrago batean, jendartean ideologikoki eragitea.

Batean zein bestean, mugimendu feministak justizia eredu berri baten gogoetan zein esperientzia praktikoetan paper aitzindaria joka dezakeela uste dugu. Are gehiago, egun, eman diren esperientzia ezberdinetan jokatzeko ari dela esan dezakegu.

Komunitatea eta komunitatetik irauliz, justizia feministaranzko urratsak

Jendartea orokorrean, eta bereziki, hurbileneko komunitateak jokatu behar duen paperaz hausnartu eta bultzatu behar dugu. Hain zuzen, komunitate mailan posiblea delako elkartasun eta erantzukizun kolektiboetan oinarrituriko beste logika batzuk garatzea eta biktima zein biktimarioa prozesuaren subjektu aktibo bihurtzea.

Neoliberalismoak gero eta bakartuagoak nahi gaituen honetan, komunitatearen eraikuntza bera erreminta zorrotza da. Justizia prozesuetan esku-hartze komunitarioa bideratzeko, honen ahalduntzea eta formazioa ezinbestekoa da. Arnas luzeko begirada behar dugu, justiziaren eraikuntzan aktore diren arlo ezberdinak kontuan hartuz, bereziki, justizia sistema, erakundeak, hezkuntza sistema, komunikabideak eta komunitatea. Mugimendu Feministak akuilu funtzioa dauka, hausnarketan sakondu, galdera berriak identifikatu eta eztabaida partekatzen jarraitzen duen bitartean. Aurreko atalean jasotzen genuen moduan, bidean sortuko diren kontraesan eta korapiloak ez saihesteko hautua egiten dugu, horietatik aberastuko baita azken emaitza. Beti ere, gatazken arteko hierarkiak ez ezartzeko konpromisoak gidatuko gaitu eta biolentzia ezberdinen aitortzatik arituko gara.

Esan gabe doa sistema heteropatriarkal kolonial kapitalista honetan ez dagoela ez justiziarik, ez bakerik, ezta horretarako aukerarik ere. Horregatik, dominazio egitura guztien eraldaketa izango dugu zeharkako helburu proposatzen ditugun lan lerro guztietan. Mugimendu Feminista ehun komunitarioaren parte den heinean, jarraian dituzue komunitatea eta komunitatetik iraultzeko hainbat proposamen.

Era berean, azpimarratu nahi dugu ez garela zerotik abiatzen, badirela eremu ezberdinetan eragin nahi dugun norabidean garatzen ari diren esperientzia praktikoak.

Horregatik, hurrengo lerroetan landutako atal bakoitzaren amaieran interesgarritzat jo ditugun adibide batzuk bildu ditugu.

Prebentzioa

Arlo honetan komunitatearen geruza ezberdinetan abiatu daitezkeen barne prozesuak dira klabea: eskolan, sindikatuan, alderdian, kultur elkartean, euskaltegian, merkataria edo ostalari elkarteetan, jai batzordean, eta abar. Jendartean dauden biolentzia ezberdinen aurrean betaurrekoak jartzeko tresnak eskainiz, biolentzia hauen aurkako kontzientzia hartzea eta jarrera aktiboa sustatzea da helburua. Indarkeria matxistaren kasuan, erasoak ematen direnean esku-hartze egokia egin ahal izateko, aurre-lanketa bat egotea ezinbestekoa da.

Baina arrazionalki lezioa ikastearekin ez da nahikoa. Norberaren kontraesanak topatzea eta sentitzea ezinbesteko abiapuntua da erreproduzitzen diren genero-sistemak ulertzeko eta aldaketak barrenetik mugiarazteko. Aztertu beharko da komunitate zehatz horren jardunak, lengoaiak, antolaketa ereduak edota lidergotzak nola elikatzen dituen botere harremanak, eta batez ere, hori konpontze bidean jartzeko konpromisoak adostu beharko dira.

Prozesu hauetan, erantzukizun indibidual eta kolektiboa azpimarratu egiten da, injustizien aurrean daukagun ardura eta agentzia aktibatzeke. Garrantzitsua izango da abiatuko diren prozesuak baliabidez hornitzea, izaera estrategiko onartzea eta ardura honi kolektiboki heltzea, komunitate horietako kide guztiak interpelatuak sentitu daitezzen eta gaiaren lanketa ez dadin erori dagoeneko sentsibilizatuen daudenen gain. Ikuspegi feminista batetik, eta generoaren arabera desorekak harreman guztiak blaitzen dituen, emakumeak ahalduzko espazioak eta gizonak beren pribilegioak lantzeko espazioak egotea garrantzitsua izango da, behar beharrezkoa baita gizonen konplize izateari utzi eta ardurak hartzea.

Prebentzioaren eremu honi lotuta, zenbait adibide topa ditzakegu. Nabarmentzekoak dira indarkeria matxistaren kasuei aurre egiteko garatu diren Protokoloak, barne mailako batzuk - Joxemi Zumalabena kasu¹³-, edo komunitate zabalagoari zuzendutakoak, adibidez, jaien testuinguruan sortutakoak - Gora Iruñea edo Donostiako Piratak-. Era berean, aipagarriak dira erakunde publikoetatik bultzatutako zenbait programa, komunitatean eragina dutenak ere -hezkuntzari begirako Skolae Progama¹⁴- edo gazteei zuzendutako Beldur Barik Egitasmoa¹⁵-.

Erantzun publikoa

Justizia feministaren oinarrien baitan planteatzen ari garen biraketa antipunitibistak ez

¹³ Ikus: <http://joxemizumalabe.eus/2019/05/16/indarkeria-matxistak-herri-mugimenduetan-gure-prozesuaren-kronika-laburra/>

¹⁴ Ikus: http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2017/09/Skolae-Berdin-bidean_Creciendo-en-Igualdad-hezkidetza-plana-eu.pdf

¹⁵ Ikus: <https://www.beldurbarik.eus/eu/>

du zerikusirik inpunitatearekin edo isiltasuna ezartzearekin. Are gehiago, ultra eskuinaren eta indar kontserbatzaileen gorakadak biolentziaren eremuan kokatu duenean feminismoaren aurkako kontra-ofentsiba. Horregatik, salaketa eta erantzun publikoa ezinbesteko helduleku dira, injustizien aurrean komunitatearen ahalik eta geruza gehien inplikatu nahi baditugu. *Me too* bezalako mugimenduen harira emakume askok bizitako eraso sexistak publikoki partekatu dituzte. Erakundeak, kulturaren industria eta, orokorrean, harreman sozial guztiak, zeharkatzen dituen bortxaketaren kulturaz ohartarazi ziguten ahots hauek. Askok sinesgarritasuna kendu eta testigantzak zikintzen ahalegindu baziren ere, feministok babes olatu batekin erantzun genuen, eta erasook egiturazkoa den indarkeriaren markoan txertatu genituen. Hortaz, horrelako erantzunek historikoki intimitatean gordetzera behartua izan dena, sozializatu eta politizatu egiten dute; anbiguetatea gainditu eta mugak jartzeko balio dute; eta epaia erosotuz jario jarri beharrean, publikoa den arazoaz hitz egitera lagundu dakiguke.

Eremu askotan oso arriskutsua izaten jarraitzen du isiltasuna apurtzea eta gertatutakoa salatzea. Horregatik, ezin dugu onartu anti-punitibismoaren izenean feminismoaren potentzia mobilizatzailea isilarazi, ezta gure salaketa ahalmena mugatu ere. Baina gure erantzunetan erabiltzen dugun lengoai edota aldarrikapenetan zigor logikari iskin egiteko erronka dugu. Sistemak biolentziekiko sentsibilizazioa erabiltzen ari da zenbait mezu zabaltzeko: beldurrarena, kontrolarena, hiritarren segurtasunarena, polizia eta espetxea indartzearena, kode penala gogortzearena... Horrek guztiak arazoa konpondu beharrean, biolentzia areagotzen du.

Asko dira eremu honetan koka ditzakegun adibideak, indarkeria matxistari lotutakoak - Mundu Martxan adostutako erantzun protokoloa¹⁶, Elizari lotutako salaketak haurtzaroen burututako abusu sexualengatik edota eraso sexistak lantokietan-, baina baita gure herrian eman diren bestelako errealitateen ingurukoak, errepresio frankistaren aurrean talde ezberdinek burututako ekimenak -Intxorta 1937 Kultur Elkartek argitaratutakoak¹⁷, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarte¹⁸- edo eta torturaren salaketarako burututako ekimen ezberdinak -Euskal Memoria¹⁹-.

Gatazken konponketa

Justiziaren dimentsio kolektiboa jorratzeko, komunitatearen papera eta sektore ezberdinen arteko elkarriketa indartu behar da. Gainera, gatazka edota eraso bat dagoenean,

¹⁶ Ikus: <http://www.emakumeenmundumartxa.eus/bitartekoak/>

¹⁷ Ikus: <http://www.intxorta.org/eu/hasiera>

¹⁸ Ikus: <http://affna36.org>

¹⁹ Ikus:

[http://www.euskalmemoria.eus/eu/Albisteak/20170213/Apur_dezagun_isiltasuna. Dagoeneko 5.657 tortura kasu egiazatu ditugu](http://www.euskalmemoria.eus/eu/Albisteak/20170213/Apur_dezagun_isiltasuna._Dagoeneko_5.657_tortura_kasu_egiazatu_ditugu)

biolentzia zuzenean pairatzen dutenez gain komunitatea ere zauritu egiten da, kideen arteko harremanetan ere eragin zuzena baitu. Beraz, gertatutakoa kudeatzeko momentuan, komunitatea osatzeko espazioak eta berriro ez gertatzeko bermeak jarri behar dira martxan.

Hasteko, testuinguru osoa aintzat hartzen duten ibilbideak behar dira, eraso burutu eta pairatu duten kideez haratago. Zigorren logika gainditzeak eta baita inpunitatearen aurkako borroka ere, entzuketara eta behaketa aktiboa eskatzen dute, batez ere, mina jaso duen pertsonaren behar eta denborei arreta eskaini ahal izateko. Gatazkak konpontzeko biktimaren segurtasun eta lasaitasunerako bermeak sortu behar dira, horrek ahalbidetzen baitu aurrerago kultura ez punitibotik prozesuei ekitea. Biktimak babesteko ditugun sare, baliabide eta arduren inguruan asko dugu asmatzeko, exijitzeko eta hobetzeko.

Elkarrizketa eta negoziazioa dira gatazka bat konpontzeari begira kontsentsua edo akordioa lortzeko tresnak. Ildo horretan, ez dago negoziazio prozesurik inplikaturako aldeek zerbaitetan amore eman gabe, gatazka ondo konpondu eta aldeek irabazten ateratzeko. Baina negoziaketara formulatan, ezin dugu begi bistatik galdu gatazketan ere botere posizio eta ardura maila ezberdinak daudela, eta horrek ere konponbideari eragiten diola.

Gure ingurura begiratzean ikus dezakegu, normalean, amore-emate handiena egiten duen aldea dela gatazka konpontzeko interes handiena duena. Emakumeen aurkako biolentziaren kasuan, emakumeek, biolentzia amaitzeko interes handiagoa dutenez, amore-emate handiagoa egin ohi dute, baita eskubideetan ere. Euskal gatazkan, Espainiako estatuak ez du gatazkaren ondorioak konpontzeko inolako interesik, eta euskal gizartea da amore ematen ari dena.

Edozein modutan, biktima zein biktimarioa prozesuan subjektu aktibo bilakatzen badira, erreparazioan (eta ez zigorrean) oinarritutako prozesu eraginkorragoak egon daitezke, esate baterako: erasotzaileen kargutzeko, egindakoaren ardura hartzeko eta birgizarteratzeko; erasotutako kidearen askatasuna, beharrak eta babesa erdigunean jartzeko; eta baldintzarik egotekotan, egoera konpontzeko hitzarmena adosteko.

Bestetik, eta gatazkak kudeatzea ardura kolektiboa den heinean, horri eusteko giza baliabide (lan-taldeak, adituak...) eta baliabide materialak (aurrekontuak, egiturak, espazio egokiak...) behar dira. Inportanteak dira barrura zein kanpora begirako prozesuak, indibidualak zein kolektiboak: erruarekin, minarekin, diferentziekin edota gatazkekin dugun harremana lantzea eta prozesuak ebaluatzeko eta abiatzeko tresnak sortzea. Ahalduntze komunitarioa dugu horretarako lanabesa; zapalkuntza egiturekiko begirada kritikoa lantzearekin batera, logika dualistak (ona-gaiztoa, epailea-erruduna, arrazoia-emozioa) deseraiki eta pertsona zein taldearen ahalduntze integrala bilatzen duena; errespetuaren, elkarrekikotasunaren eta elkartasunaren balioak oinarri.

Zurumurruen eta informazioaren kontrola izatea klabea da. Zuhurtziaz eta tentuz kudeatzea ezinbestekoa da, bai prozesu honetan parte hartzen duten pertsonen zaintza egiteari begira eta baita jendartean artikulatu daitekeen erantzunari begira ere.

Bukatzeko, bidean zehar azalduko zaizkigun kontraesanak kudeatzeko prestatu beharko gara; gure komunitateetan hainbat botere harreman erreproduzitzen direlako, indibidual eta kolektiboaren artean interes kontrajarriak izan daitezkeelako, erasotua izan den kidearen beharrak mantendu nahi dugun jarrera anti-punitibistaren aurkakoak izan daitezkeelako, eta abar. Horregatik, gatazka egoerak kudeatuko dituzten kideak babestea eta zaintzea ezinbestekoa izango da.

Atal honetan erreferentzia egingo genizkioke klabe erreparatzailean formulatuak diren indarkeria matxistaren kasuak kudeatzeko barne protokoloei, eta hauen baitan, izandako oihartzun publikoagatik "Tximeleten erreboluzioa"-z ezagututako kasua dugu²⁰. Bestetik, bada gogoeta eta esperientzia oparoa gatazken konponketarako metodoaz hezkuntza eremuan non proposamen ezberdinak topa ditzakegun Hik Hasi egitasmoa pedagogikoan²¹ edota Aisialdi Eskoletako formakuntza eskaintzan ere -Urtxintxa-.

Erreparazioa eta osatzea

Pertsonala politikoa den bezala, eremu pribatuan geratu ohi den mina politikoa ere bada. Memoriaren eraikuntza kolektiboa eta egiaren aitortza publikoa min hori sendatze bidean jartzeko antidoto finak dira. Emakumeok, gatazka anitzen baitan, pairatu dugun biolentzien errelatoa berreskuratzea, hori kontatzeko baldintzak sortzea, transmisioa eta komunitatearen aitortza jasotzea erreparazioa lortzeko adreiluak dira. Komunitateak epaitzen eta berbiktimizatzen duenean, aldiz, mina askoz handiagoa da. Hor kokatzen dugu datorren urteetarako desafio nagusia.

Justizia gure gorputzetan ere badago. Horrek justizia soziala lortzeko barneko emozioen eta minen transformazioa eta gogo-gorputzen osatzea beharrezkoa dela esan nahi du. Beraz, justizia eraikitzeke ibilbideetan, horretarako denbora, espazio eta baliabideak eskaini behar dira. Gure gorputzen gaineko krudelkeria eta injustizia, gure buruekiko zaintza eta maitasunarengatik ordezkatu behar dugu. Biolentzia egoerei biziraun dioten emakumeen ongizate mailak neurtuko du justiziaren erdiespena.

Ildo honetatik, funtsezkoa iruditzen zaigu erreparazioak eta osatzeak ezinbesteko dimentsio kolektiboa dutela azpimarratzea. Erreparazioaz ari garenean maila indibidual zein

²⁰ Ikus: <https://www.berria.eus/albisteak/168784/engainuz-nesken-argazkiak-lortzeagatik-abiatutako-auzibidea-akordio-batekin-itxi-dute.htm>

²¹ Ikus: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20080201/haurrek-elkarren-arteko-gatazkak-haien-artean-konpondu-behar-al-dituzte-kasu-horretan-jazarpenak-izateko-aukera-handiagoa-al-da-zer-egin-behar-dute-irakasleek>

egiturazkoan eta sinbolikoan ari gara eta jasotzen dituen ezaugarri desberdinak kontuan hartzen ditugu: kalte-ordainak (ekonomikoak); errehabilitazioa (biktimari errekupeazio fisiko, psikiko eta soziala bermatzean gain, ahal den heinean erasoaren aurreko egoerara itzultzen laguntzea); ordaina (erasoen etetea, gertaerak egiaztatzea, egiaren hedatze publikoa eta duintasuna eta biktimaren duintasuna eta ospea erreparatzen duten adierazpen ofizialak egitea). Egia zabaltzeko beharra azpimarratu nahi dugu berriz ere, arlo publiko eta sozialean biktimak legitimatu eta haiei sinesgarritasuna emateko. Osagai honek garrantzi handia du biktimiek dituzten bizipen subjektiboetan eta errekupeazio prozesuetan. Azkenik, egindakoa berriz ez errepikatzeko bermeak ezartzea oinarrizkotzat jotzen dugu, arlo indibidual zein egiturazkoan.

Justiziaren inguruko hausnarketan, erreparazioa eta osatzea funtsezkoak dira. Hala ere, garrantzitsua da bi terminoak bereiztea eta osatzeari dagokionez, irakurketa feminista kritikoak kontuan hartzea. Irakurketa horiek biolentziaren biktima pertsona gaixotzat hartzeko arriskuaz ohartarazten dute. Garrantzitsua da biktima bakoitzak erreparazioaz eta osatzeaz zer ulertzen duen kontuan hartzea, oso esanahi ezberdinak hartuko baitituzte; izan ere, biktima batentzat osatzeko lagungarria denak ez du zergatik horrela izan behar beste biktima batentzat. Horregatik, hurrengo gaien inguruko elkarrizketa irekian eta etengabeko berrikusketan aritzea beharrezkoa dela deritzogu: ikuspegi feministatik erreparazioa eta osatzea nola ulertzen dugun, bi terminoen arteko loturak eta aldeak zeintzuk diren eta kontzeptu horiek garatzeko nolako ekarpena egin dezakegun esate baterako. Bide honetatik, erreparazioak eta osatzeak ezinbesteko dimentsio kolektiboa dutela azpimarratzea funtsezkoa iruditzen zaigu.

Asko dira norabide honetan gure herrian burutu diren ekimenak, asko eta asko 36ko gerra eta frankismoaren aldiari lotutakoak “Egia, aitortza eta erreparazioa”-ren logikaren baitan. Torturaren kasuen erreparazioari begira, esperientzia interesgarria burutu berri du Egia Zorrek²². Indarkeria matxistari lotuta, Mugarik Gaberen Memoria Eraikiz Proiektua²³ dugu adibide gisa, eta euskal emakumeon bizitzak zeharkatu dituzten indarkeria mota ezberdinen aitortza gisa, Foro Sozialetik burututako “Nik sinisten dizut” ekimena kokatuko genuke.

Bakea, elkarbizitza edota justizia, hitz potoloak diren arren, txikitik eta behetik gorako logikan eraikiko ditugu. Erakunde publikoei dagokien ardura exijitzearekin batera, herritarren uste eta ekintzetan eraginez eta komunitateak eraldatuz egingo dugu aurrera.

²² Ikus: <http://egiarizor.eus/eu/torturaren-ostean-berreraikitzen>

²³ Ikus: <https://www.mugarikgabe.org/violenciamachistas/eu/memoriaeraikiz/>

ERABILI DITUGUN ERREFERENTZIAK

- Davis, Angela (2016) *Democracia de la abolición: Prisiones, racismo y violencia*. Trotta, Madril.
- Francés Lecumberri, Paz eta Diana Restrepo Rodríguez (2019) “El camino hacia lugares más justos: al encuentro de la abolición”. *¿Se puede terminar con la prisión? Críticas y alternativas al sistema de justicia penal*. Madril: Catarata, 174-210 orr.
- Francés Lecumberri, Paz eta Diana Restrepo Rodríguez (2016) “Rasgos comunes entre el poder punitivo y el poder patriarcal”. *Rev. colomb. soc.*, 39(1), 21-46 orr.
- Mladjenović, Lepa (2011) “Sanar es justicia: ‘Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad, ¡Presente!’”. La Historia del Segundo Festival para la Memoria de las Mujeres Sobrevivientes de Violación Sexual durante el Conflicto Armado”. Guatemala: Chimaltenango, 24-28 de febrero de 2011.
- Segato, Rita (2013) “Informe de Experta”. In: Mugarik Gabe. *Tribunal Internacional de Derechos de las mujeres*. Viena+20. Bilbo.
- Terradas, Ignasi (2019) “Algunos apuntes para reflexionar sobre modelos de justicia, cultura, género y feminismo”. Bilbon egindako hitzaldia. 2019ko martxoak 15.
- Vega, Cristina (2019) “Reflexiones sobre impunidad, punitivismo y justicia en los feminismos en movimiento”. *Sin Permiso*, 12/01/2019. Eskuragarri: <http://www.sinpermiso.info/textos/reflexiones-sobre-impunidad-punitivismo-y-justicia-en-los-feminismos-en-movimiento>